

Selekzioa ♦ Eak ere selekzioak galdegingo ditu Madrilen

Arraun, pilota eta herri kirol selekzioak «berehala»

EAJk hori eskatu du bere kirol ponentzian

Enekoitz Esnaola / Donostia

EUZKO ALDERDI JELTZALEA (EAJ) eta Eusko Alkartasuna (EA) dira martxoaren 12an Espainiako hauteskundeetara aurkeztuko diren bi alderdi abertzaleak, Euskal Herritarrok-ek abstentzioa eskatuko duelako, eta, hainbat gairen artean, selekzioena ere badute bi alderdi horiek beren programan, oso gai garrantzitsua iruditzen zaielako.

EAJk herenegun iluntzean aurkeztu zuen bere kirol ponentzia, Donostian, Miramar jauregian, eta «Euskal Kirolaren Legean eta horren babesean sortutako egituretan oinarrituta», selekzioen alde egiten du, eta kirol arlo guztiak kontuan hartzen baditu ere, bereizketa bat egiten du, tosta finkoko arraunketan, herri kirolean eta pilotan «berehala» nahi dituelako selekzioak, eta horiekin «nazioartean behar bezala ordezkaturik egotea». Hain zuzen, kirol horiek «euskal kulturari itsasita» egoteagatik egin du bereizketa hori EAJk. Eta Xabier Leibar Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak adibide bat jarri zion EGUNKARIARI: «Hawaiin bertako kirola dute surfa, eta EEB-Bek uzten diote Hawaiiri surfean selekzio propioa izaten. Zergatik ez digu uzten hori Espainiak geure kirolean?».

Juan Joxe Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako EAJren hautagaiak aurkezpenean esan zuenez, bere alderdiak «ekimen zehatzak aurkeztuko



EGUNKARIA

Pilotaren adibidea. Euskal pilotariek Espainia edo Frantziarekin jokatu beharra izaten dute nazioartean lehiaketa ofizialetan. Argazkian, Apezetxea —ezkerrean— Espainiarekin, 1998an, Mexikoko mundialean.

hitz bitan

Clemente EAJren aurkezpenean:

Gipuzkoako kiroleko hainbat ordezkari ezagun joan zen herenegun iluntzean EAJren kirol ponentziaren aurkezpenera. Han ziren, Javier Clemente (Realeko entrenatzailea), Juan Luis Larrea (Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea), Iñaki Almandoz (Askatuak-eko burua) edota Andres Vilariño auto gidaria.

ditu Madrilgo Legebiltzarrean, eta gobernuak betoak altxatzea da helburua».

Euzkadi Buru Batzarreko (EBB) bozeramaileak ere, Jo-

seba Egibarrek, parte hartu zuen aurkezpenean, eta haren ustez, «kirolak, euskarak bezala, bildu egiten du euskal gizartea», eta EAJk ahalegin handiak egingo omen ditu selekzioen gaia aurrera atera ahal izateko. «Makina bat izerdi atera beharko dugu selekzioak lortzeko», esan zuen Egibarrek. «Izan ere, gaur egun Europan ez dago Europako Batasunik, estatuen batuketa baizik, eta estatuek ez dute beren boterea galdu nahi, eta jakin badakite oso arlo garrantzitsuak direla hizkuntza eta kirola», eta Espainiak eta Frantziak «gendar-me» lana egiten dute.

Eak ere sartu du programan selekzioen kontua, eta Euskal Herriak nazioartean ofizialki lehiatzeko eskubidea du alderdi horren ustez.

EAJren eta EAren proposamenak

Eskubide bat eskatuz

• Hiru puntu ditu EAJren kirol ponentziak: 1. Euskal Eredu Nazionala; 2. Kirola bitarteko pedagogiko gisa; 3. Kirola eragile ekonomiko gisa. Lehendabiziko puntuan ageri da selekzioaren gaia. EAren programan ere aipatzen da gai hori. Horratx zenbait zati.

EAJ

1.a.- Nazioarteko federazioen goi mailetan ordezkartza instituzionala izatea, hau da, lehiaketa mailako euskal kirola, dagozkion euskal federazioen bitartez, nazioartean behar bezala ordezkaturik egotea. Gainera, berehala ordezkaturik egotea

eskatu behar dugu euskal kulturari itsasita dauden espezialitate berezietan: herri kirolean, tosta finkoko arraunketan eta euskal pilotan.

1.c. Euskal herri erakundeek plan estrategiko bereziak egitea eta bultzatzea herri kirolei, arraunketari eta pilotari begira; eta plan estrategiko orokorrak, berriz, gainerako kirolen lurralde eta nazio mailako sareei begira, euskal kirol kulturaren gehien itsasita dauden modalitateak azpimarratuz.

EA

Euskal Herriak bere kirol selekzioak osatzeko eta haiekin nazioartean lehiaketa ofizialetan parte hartzeko eskubidea dauka.

laburrean

T E N I S A

■ **Cristina Torrens Sao Pauloko Torneoko final-laurdenetan**
HOLLY PARKINSON estatubatuarrari hiru setetan (7-5, 4-6 eta 6-1) irabazita, Sao Pauloko Torneoko final-laurdenetara sailkatzea lortu zuen atzo Cristina Torrens tenislari nafarrak. WTA zirkuituko torneoa da Brasilen jokatzen ari diren hori. Hannoverkoan, berriz, Serena Williams estatubatuarra finalerdietan da, atzo Patty Schnyder suitzarra kanporatu ostean (6-1 eta 6-4).

S A S K I B A L O I A

■ **Malone, Stockton, Hornacek hirukoari esker atera zuen aurrera Uthak Sacramentoren kontrakoa (119-108)**

«ZAHARTUTA gaude, hori ezin dugu ukatu, baina ez dugu zaharrek bezala jokatzen», esan zuen Uthako John Stocktonek Sacramentoren kontrako partidua bukatutakoan. Ez zitzaion arrazoirik falta. Berak (22 puntu eta 10 asistentzia), Karl Malonek (30 puntu eta 10 errebote) eta Jeff Hornacekek osatutako hirukoteari esker lortu zuten garaipena (119-108), eta lidergora hurbildu dute taldea. Azken jardunaldiko beste emaitzak: Cleveland 119-101 Denver, Milwaukee 90-92 Indiana, Chicago 83-76 Miami, Dallas 106-97 Detroit.

T X I R R I N D U L A R I T Z A

■ **Olano eta Jalabert ONCEko liderrak Luis Puig Sarian eta Valentziako Itzulian**

IGANDEAN jokatuko da Luis Puig Saria eta otsailaren 22tik 26ra Valentziako Itzulia. Bi proba horietarako Abraham Olano eta Laurent Jalabert —Mediterraneoko Itzulia irabazi berritan— izango dira ONCEko bi gizon nagusiak. Iñigo Cuesta, Rafael Diaz, Santos Gonzalez, Nicolas Jalabert (Luis Puigen bakarrik), Gaizka Lejarreta eta Isidro Nozal izango dira beste taldekideak.

■ **Durangoko Txirrindulari Elkarteak Sabeco supermerkatu etxearen babesa izango du aurten**

BAQUE etxearekin izandako 21 urteko harremana apurtu ostean, Durangoko Txirrindulari Elkarteak babesle berri batekin aurkeztu zen atzo, Sabeco supermerkatu etxearekin. Durangoko Txirrindulari Elkarteak, kadeteak, juniorrak eta emakumezkoak izango ditu aurten elkartean, eta hiru talde horien aurrekontua 6 milioi pezetakoa da. Gaur sa Renault eta Durangoko Udalaren laguntza ere izango du elkarteak, Sabecorenaz gain. Supermerkatu etxearekin lortutako akordioa urtebeterako da. Aurten ere zazpi txirrindulari proba antolatuko ditu Durangoko Elkarteak.

I Z O T Z - H O C K E Y A

■ **Txuri Urdin eta Gasteiz taldeen arteko derbia gaur**

DENBORALDIAN zehar elkarren kontra jokatutako bi partiduetan Txuri Urdinek irabazi ditu Gasteizen, eta Donostian jokatuko dute gaur hirugarren derbia (22:00). Sailkapenean alde handia dago bien artean —hirugarren dago Txuri Urdin eta seigarren, azkena, Gasteiz—. Pierre Vacherek eta Goyo Martinek ez dute jokatuko Txuri Urdinen, baina faborito argiak dira garaipena lortzeko.

LEZAMAKO KIROL INSTALAZIOAK

Igandea, otsailak 20, 17:00etan
Liga Txapelketa, 2. Maila "B"

BILBAO A.C. - ZAMORA

.....

Larunbata, otsailak 19, 16:15etan
Gazteen Liga Nazionala

Athletic Club - Retuerto

Coche Oficial del
Athletic Club